

Diru-sarrerei dagokienez, negozioaren oinarri nagusia produktuaren salmenta zuzena izango da, txalekoaren salmenta unitarioan oinarrituta. Prezioa 80 eurokoa izango da unitateko, eta bezero nagusiak enpresak izango dira, nahiz eta autonomoek edo langile partikularrek ere erosteko aukera izango duten.

Horrez gain, bolumen bidezko salmentak sustatuko dira, unitate kopuruaren arabera kontuak eskainiz: 10 eta 50 unitate artean kontu txikiak aplikatuko dira, eta 50 unitatetik gorako erosketetan kontu handiagoak, enpresentzako pizgarri nagusi gisa.

Azkenik, ordainketa moduei dagokienez, webgunearen bidezko ordainketa zuzena eskainiko da, erosketa prozesua erraztuz.